BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

113

EBAZPENA, 2014ko abenduaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena. Honen bidez, ordezko heldutasun-probetarako deialdia egiten da, Arte Plastiko eta Diseinuko Erdi- eta Goi-mailako Lanbide-ikasketetan, Erdi- eta Goi-mailako Kirol-ikasketetan eta Goi-mailako Arte-ikasketetan sartzeko ezarritako baldintzak egiaztatzeko 2015-2016 ikasturterako.

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hezkuntzari buruzkoak, honela definitzen ditu, I. tituluko VI. kapituluan, ikasketa artistikoak: ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea helburu dutenak. Arte-ikasketei buruzko kapitulu horrek, halaber, ikasketa horien antolamendua, bateragarritasunak, antolaketa eta sarrera-baldintzak arautzen ditu.

Hain zuzen ere, maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuak, arte plastiko eta diseinuko lanbide-ikasketen araubide orokorra zehazten duenak, baldintza akademikoak zehaztu ostean, puntu horri buruz 16. artikuluan esaten du, erdi- eta goi-mailako ikasketa horietan sar daitezkeela baldintza akademikoak betetzen ez dituzten ikasleak, baldin eta hezkuntza-administrazioak araututako sarrera-proba gainditzen badute.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organiko horren VIII. kapituluak, berriz, honela definitzen ditu kirol-irakaskuntzak: ikasleei kirol-modalitate edo –espezialitate bateko lanbide-jardueran aritzeko prestakuntza ematea helburu dutenak.

Ikasketa horiek egiteko sarbideari dagokionez, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuko 31. artikuluak xedatzen du erdi-eta goi-mailatan sar daitezkeela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulurik edota Batxilergoko titulurik ez duten ikaslegaiak, baldin eta hezkuntza-administrazioek araututako sarrera-proba gainditzen badute.

Halaber, arte plastiko eta diseinuko lanbide-irakaskuntzak erdi-mailako zikloetan eta goi-mailako zikloetan egituratuta daude, eta, horrenbestez, baldintza akademiko berdinak bete behar dira haietara sartzeko.

Unibertsitatekoak ez diren goi-mailako irakaskuntzen esparruan, hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren I. tituluko VI. kapituluaren 3. atala goi-mailako irakaskuntza artistikoei buruzkoa da. Eta goi-mailako arte-ikasketen araubidea xedatzen duen urriaren 26ko 1614/2009 errege Dekretuko 12.1 artikuluan ezartzen dira sarbiderako baldintzak.

Sarbideari buruz, maiatzaren 14ko 630/2010 633/2010 arteko Errege Dekretuek –Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako goi-mailako arte-irakaskuntzen espezialitateentzako oinarrizko edukiak arautzen dituztenak– beraien 5.2 artikuluetan, ezartzen denez, hemeretzi urtetik gorakoek aipatutako 12.1 artikulu horretan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, hezkuntza-administrazioek proba bat arautu eta antolatuko dute, izangaiek egiazta dezaten batxilergoko helburuetan heldutasun nahikoa dutela, eta ikasketa horiek probetxuz ikasteko behar diren jakintza, trebetasun eta gaitasunak ere bai. Proba hori gainditzeak balio iraunkorra izango du goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko Estatu osoan.

Laburbilduz, eta kontuan hartuta aipatutako ikasketa horiek guztiek berezitasun berdina dutela (baldintza akademikoen ordezko heldutasun-proba izatea, alegia), eta oinarrizko arauan

zehaztutakoaren ondorioz hezkuntzaren alorreko eskumena duten administrazioei dagokiela heldutasun-proba antolatzea, hezkuntza-administrazio honek irizten dio irizpideak bateratu behar direla, heldutasun-probaren zati komunaren prozeduren, helburuen, edukien eta ebaluazioaren alorrean, aipatutako egoeran dauden ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren edo Batxilergoaren pareko maila dutela egiaztatzeko. Horrenbestez, Hezkuntzako sailburuordeak hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Arauaren xedea.

Ebazpen honen bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren edo Batxilergo-tituluaren ordezko heldutasun-probak deitu eta antolatzen dira xedatutako baldintza akademikoak betetzen ez dituztenentzat, 2015-2016 ikasturtean honako ikasketa hauetan sartzeko: Arte Plastiko eta Diseinuko Lanbide-irakaskuntzako erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetan, Kirol-irakaskuntzetan, aldi baterako kirol-prestakuntzen I. eta III. mailetan eta Goi-mailako Arte-irakaskuntzetan.

Bigarrena.– Proben eragina.

1.– Erdi-mailako Arte plastiko eta diseinuko lanbide-ikasketak, erdi-mailako kirol-ikasketak eta aldi baterako kirol-prestakuntzen I. mailako ikasketak egiten hasteko behar den Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren ordezko heldutasun-probaren helburua da egiaztatzea ikasketei probetxu ateratzeko ezaupide eta trebetasun nahikoa dutela ikaslegaiek.

2.– Heldutasun-probaren helburua da egiaztatzea Batxilergoko baldintzak betetzen dituztela Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako lanbide-ikasketetan, Goi-mailako Kirol-ikasketetan, Kirol-ikasketen III. mailan, eta Goi-mailako Arte-irakaskuntzetan sartzeko.

3.– Aipatutako maila akademikoen ordezko heldutasun-proba gaindituz gero, hurrenez hurren, Arte Plastiko eta Diseinuko lanbide-ikasketak eta Kirol-ikasketak egiteko aukera emango da, maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuaren 17. artikuluak eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren 32. artikuluak ezarritakoaren arabera, betiere, sarrerako berariazko proba gainditu ostean.

4.– Goi-mailako Arte-irakaskuntzen kasu zehatzean, proba hori gainditzeak balio iraunkorra izango du goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko Estatu guztian, beti ere maiatzaren 14ko 630/2010 Errege Dekretuko 5.2 artikuluan, 631/2010 Errege Dekretuko 5.2 artikuluan, 632/2010 Errege Dekretuko 5.2 artikuluan eta 633/2010 Errege Dekretuko 5.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.– Proba horiek ez dute balio ikasketak baliozkotzeko, homologatzeko edo lanbide-gaikuntza egiaztatzeko, eta ez dira titulu akademikoen baliokide.

Hirugarrena.– Hartzaileak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren eta batxilergo-tituluaren ordezko heldutasun-probak egin ahal izango dituzte honako ikasketa hauetan sartzeko oinarrizko arauetan xedatutako baldintza akademikoak betetzen ez dituztenek:

a) Arte plastikoetako eta diseinuko lanbide-ikasketak.

b) Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuak araututako kirol-ikasketak. Dekretu horren bidez erregimen bereziko kirol-ikasketen antolaketa orokorra ezartzen da, bai eta Errege Dekretu horren aldi baterako hirugarren xedapenean aurreikusitako aldi baterako kirol-prestakuntzena ere.

c) Goi-mailako Arte-irakaskuntzak.

d) Otsailaren 5eko ECD 158/2014 Aginduak (otsailaren 8ko BOE) araututako kirol-prestakuntzak.

e) 2014ko maiatzaren 5eko Aginduak (maiatzaren 19ko EHAA) Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorio Profesionalean ezarri eta erregulatzen dituen arautu gabeko Lutheria-irakaskuntzak arku-instrumentuen adarrean.

Laugarrena.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Erdi-mailako Arte plastiko eta diseinuko lanbide-ikasketetan, Erdi-mailako kirol ikasketetan eta I. mailako kirol-ikasketetan sartzeko ordezko probetan parte hartu ahal izango dute betekizun akademikoak betetzen ez dituzten eta honako baldintza hauetako bat betetzen duten pertsonek:

a) Gutxienez hamazazpi urte izatea, edota adin hori proba egiten den urte naturalean betetzea.

b) Egiaztatzea proba egiteko unean urtebeteko lan-esperientzia duela, gutxienez.

2.– Arte plastiko eta diseinuko lanbide-ikasketetan eta/edo goi-mailako kirol-ikasketetan, goi-mailako arte-ikasketetan, eta/edo III. mailako aldi baterako kirol-prestakuntzan sartzeko ordezko probetan parte hartu ahal izango dute betekizun akademikoak betetzen ez dituzten eta honako baldintza hauetako bat betetzen duten pertsonek:

a) Gutxienez hemeretzi urte izatea, edota adin hori proba egiten den urte naturalean betetzea.

b) Arte plastiko eta diseinuko teknikari-titulua eta/edo kirol-teknikari titulua izatea eta hemezortzi urte izatea, edota proba egiten den urte naturalean betetzea.

Kirol-irakaskuntzen kasuan, a eta b puntuetan azaltzen diren baldintzak bete beharko dituzte izangaiek.

Ebazpen honetan araututako probetarako izena emateko unean, b puntuan zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatu behar da.

Bosgarrena.– Salbuespenak.

1.– Erdi-mailako ikasketak.

1. puntuko ikasketetako erdi-mailan sartzeko heldutasun-probarik ez dute egin beharko Arte Plastiko eta Diseinuko edo Lanbide Heziketako erdi-mailako heziketa-zikloetako sarrera-probaren zati komuna gainditu dutenek, edo 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutenek.

2.– Goi mailako ikasketak.

1. puntuko goi-mailako ikasketetan sartzeko heldutasun-probarik ez dute egin behar arte plastiko eta diseinuko edo Lanbide Heziketako goi-mailako heziketa-zikloetako sarrera-probaren zati komuna gainditu dutenek, edo 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutenek.

3.– Halaber, probaren alorreko irakasgaien bat gainditua dutenek (DBHko 4. mailakoa, erdi-mailako ikasketak egiteko; eta Batxilergoko 2. mailakoa, goi-mailako ikasketak egiteko) ez dute horren azterketarik egin behar, eta baliozkotuta dutela joko da. Horretarako, matrikulatzeko unean aurkeztu behar da dagokion egiaztagiria.

Seigarrena.– Sarrera-probetarako izena ematea.

1.– Ebazpen honen bidez deitzen diren probetarako izena emateko epea 2014ko martxoaren 2tik apirilaren 14ra artekoa izango da, eta Vitoria-Gasteizko IES Mendebaldea BHIn eman beharko da izena.

2.– Dokumentazio hau aurkeztu behar izango da:

a) Izen-emateko eskabidea, I. eranskinean ageri den eredu normalizatuaren araberakoa.

b) Nortasun-agiriak edota beste ziurtagiriak.

c) Gainera, Kirol-ikasketen goi-mailara edo kirol-prestakuntzako III. mailako ikasketak egin nahi dituztenek erdi-mailako edo II. mailako ikasketak gainditu dituztela egiaztatzen duen agiria edo hura eskatu izanaren frogagiria aurkeztu behar dute.

d) Ordainketa egin izanaren frogagiria.

3.– Gutxitasunen bat izateagatik ikaslegaiek sarrera-proba egiteko denbora edota bitartekoen bat egokitzea behar badute, eskatu egin beharko dute izena emateko unean.

Zazpigarrena.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda.

1.– Onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak 2015eko apirilaren 15ean argitaratuko dira IES Mendebaldea BHIko web orrian (www.mendebaldea.hezkuntza.net).

2.– Zerrendan baztertutako eskabiderik balego, erabaki horren arrazoiak adieraziko dira.

3.– Zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira argitaratu eta 48 orduko epean.

4.– Erreklamazioak ebatzi eta behin betiko zerrendak argitaratuko dira, 24 ordu igaro baino lehen.

Zortzigarrena.– Prezio publikoa ordaintzea.

1.– Proba hauek erregimen bereziko irakaskuntzetan sartzeko proben funtsezko zatia direnez, 2014ko ekainaren 3ko Aginduak –Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituenak– xedatutakoaren arabera:

– 28,02 euro ordaindu behar dituzte deialdian parte hartzen duten ikaslegaiek sarrera-probaren prezio publiko gisa ES13 2095 0611 0710 9095 5823 kontu korrontean.

– Ordainagirian, proba egingo duen ikaslearen izena eta bi abizenak jasoko dira.

– Zehaztu egingo da «IES Mendebaldea BHI / heldutasun-proba» kontzeptua.

2.– Heldutasun-proba hori gainditu ondoren, proba espezifikoak egin behar dutenek ez dute berriro ezer ordaindu behar izango.

Bederatzigarrena.– Probak egiteko lekua eta data.

Probak 2014ko maiatzaren 30ean egingo dira, seigarren artikuluaren lehenengo puntuan adierazitako ikastetxean. Gainerako zehaztasun guztiak adierazitako ikastetxearen web orrian azalduko dira izena emateko epea amaitu eta gero.

Hamargarrena.– Probak egiteko hizkuntza.

Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialetako batean soilik egin ahal izango da proba, atzerriko hizkuntzari dagokion ariketa salbu, dagokion atzerriko hizkuntzan egingo baita zati hori.

Hamaikagarrena.– Erdi-mailako kirol-prestakuntzako, aldi baterako kirol-prestakuntzen edota Arte Plastiko eta Diseinuko ikasketetan sartzeko heldutasun-proben egitura.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunei buruzkoa izango da, eta dagokien zikloko ikasketei probetxu ateratzeko adina ezaupide eta gaitasun dituztela ziurtatzeko aukera emango die ikasleei.

2.– Bai proban agertuko diren edukien bai ebaluazio-irizpideen erreferentzia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma izango da. Urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak xedatu eta ezarri zuen Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma Euskal Autonomia Erkidegoan (2007ko azaroaren 13ko EHAA).

3.– Probak lau gai izango ditu:

a) Matematika.

b) Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia.

c) Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa edo Frantsesa.

d) Euskara eta Literatura edo Gaztelania eta Literatura.

4.– Atal horietatik hiru aukeratu beharko ditu ikaslegaiak, eta proposatutako ariketak idatziz egin. Atal bakoitza burutzeko, ordubete izango du gehienez. Ariketa horien bidez ebaluatuko dira: Bigarren Hezkuntzako curriculumeko arlo horiei buruzko heldutasuna eta ezagutza-maila, ikaslegaiaren heldutasun-maila kontzeptuak egoki ulertzeko, hizkuntzaren erabilpena, eta analisirako eta sintesirako gaitasuna.

5.– Zati teorikoa eta zati praktikoa izango dute probek. Lehenengoan, gai-zerrendako galderak egingo dira. Bigarrenean, berriz, beste testu edo ariketa batzuk jarriko dira, iruzkina egiteko edo ariketa bera egiteko.

6.– Proba prestatzen laguntzeko, 2013-2014 ikasturteko deialdian jarritako galderak kontsultatu ahal izango dira. Adibide horiek IES Mendebaldea BHIko web orrian azalduko dira: www.mendebaldea.hezkuntza.net

7.– Ikaslegaiak ez badu heldutasun-proba gainditzen kanporatuta geratuko da, eta ez du izango berariazko sarrera-proba egiteko inongo aukerarik.

8.– Ebazpen honen V. eranskinean azaltzen dira erdi-mailako ikasketetan (1. puntuan azaltzen direnetan) edo kirol-prestakuntzako I. mailan sartzeko heldutasun-probaren edukiak.

Hamabigarrena.– Heldutasun-proben egitura, Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako ikasketetan, Kirol-ikasketako goi-mailako heziketa-zikloetan, aldi baterako kirol-prestakuntzetan, eta Goi-mailako Arte-ikasketetan sarbide-probako berariazko zatietan sartzeko.

1.– Goi-mailako ikasketetan edo Goi-mailako Arte-ikasketetan sartzeko heldutasun-proben edukiak Batxilergoko curriculuma hartuko du erreferentziatzat.

2.– Bai proban agertuko diren edukien bai ebaluazio-irizpideen erreferentzia Batxilergoko curriculuma izango da. Otsailaren 3ko 23/2009 Dekretuak xedatu eta ezarri zuen Batxilergoko curriculuma Euskal Autonomia Erkidegoan (2009ko otsailaren 27ko EHAA).

3.– Probak hiru ariketa izango ditu:

a) Espainiako Historia edo Filosofiaren Historia.

b) Atzerriko Hizkuntza: Ingelesa edo Frantsesa.

c) Euskara eta Literatura edo Gaztelania eta Literatura.

4.– Atal bakoitzean, proposatutako gaietatik bat aukeratuko du ikaslegaiak. Proba osoa egiteko, hiru ordu izango ditu, gehienez ere.

5.– Zati teorikoa eta zati praktikoa izango dute probek. Lehenengoan, gai-zerrendako galderak egingo dira. Bigarrenean, berriz, beste testu edo ariketa batzuk jarriko dira, iruzkina egiteko edo ariketa bera egiteko.

6.– Proba prestatzen laguntzeko, aurreko ikasturteko deialdietan jarritako galderak kontsultatu ahal izango dira. Adibide horiek IES Mendebaldea BHIko web orrian azalduko dira: www.mendebaldea.hezkuntza.net

7.– Ikaslegaiak ez badu heldutasun-proba gainditzen kanporatuta geratuko da, eta ez du izango berariazko sarrera-proba egiteko inongo aukerarik.

8.– Goi-mailako ikasketetan edo III. mailako kirol-prestakuntzetan sartzeko proben edukia ebazpen honen VI. eranskinean zehaztuta dago.

Hamahirugarrena.– Proben kalifikazioak.

1.– Ebazpen honen bidez deitutako probaren azken kalifikazioa ariketa bakoitzean lortutako kalifikazioen batez besteko aritmetikoa izango da, bi dezimalekin adierazita, baldin eta kalifikazio guztiak 5 puntukoak edo gehiagokoak badira.

2.– Erdi-mailako irakaskuntzetan sartzeko baldintza akademikoen ordezko probetan, azken balioespena adierazteko Gai/Ez gai kalifikazioa emango da.

3.– Goi-mailako irakaskuntzetan sartzeko baldintza akademikoen ordezko probetan, berriz, heldutasun-probaren azken kalifikazioa 0 puntutik 10 puntura bitarteko eskalaren bidez adieraziko da, bi dezimalekin.

4.– Ikaslegaia probako ariketaren batera aurkezten ez bada, ebaluazio-aktetan «EA» (ez aurkeztua) adieraziko da dagokion laukian, eta azken kalifikazioa adierazteko lekuan «Ez gainditua» jarriko da. Ikaslegaiak ariketa bakar bat ere egiten ez badu, azken kalifikazioa adierazteko lekuan «EA» jarriko da.

Hamalaugarrena.– Probaren emaitzak argitara ematea eta erreklamazioak aurkeztea.

1.– Behin-behineko emaitzak IES Mendebaldea BHIko web orrian argitaratuko dira 2015eko ekainaren 2an.

2.– Behin-behineko emaitzak argitaratu (ekainaren 3 eta 4an), eta 48 orduko epearen barruan egin ahal izango du erreklamazioa ikasleak. Erreklamazioa epaimahaiburuari zuzenduko zaio.

3.– Erreklamazio-epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean, aurkeztutako erreklamazioari buruzko erabakia hartuko du epaimahaiak, eta interesdunari jakinaraziko dio.

4.– Hartutako erabakiarekin ados egon ezean, jakinarazpena jaso eta bi egun baliodunen epean interesdunak eska dezake erreklamazioa Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariari bidaltzea. Haren ebazpena arrazoitua izango da, eta administrazio-bidea agortuko du.

5.– Erreklamazioen ebazpena eta behin-betiko zerrenda IES Mendebaldea BHIko web orrian eta Hezkuntzakoan (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net) jarriko da 2015eko ekainaren 5etik aurrera.

Hamabosgarrena.– Sarrera-probaren baliozkotasuna.

Baldintza akademikoen ordezko proba gainditu eta plazarik lortzen ez duten ikaslegaiek aukeratutako ikastetxean ikasketa horiek egiten hasteko asmoari eusten badiote, haien kalifikazioa gordeko da, eta ez dute proba berriz egin behar.

Hamaseigarrena.– Dokumentuak gordetzea eta artxibatzea.

1.– Aktak eta ebaluazio-prozesuan nahiz gainditze-ziurtagiriak egitean sortutako gainerako dokumentuak artxibatu egingo dira, eta probak egin diren ikastetxe publikoko idazkaritzan gordeko.

2.– Hautagaiek egindako ariketa guztiak urtebetez gordeko dituzte probak egindako ikastetxe publikoaren idazkaritzan.

Hamazazpigarrena.– Gainditze-ziurtagiriak.

1.– Epaimahaiko idazkariak ziurtagiria emango die proba gainditzen dutenei. VI. eranskineko ereduaren araberakoa izango da ziurtagiria, eta haren ondorio bakar eta esklusiboa izango da ikaslegaiak egin nahi duen heziketa-zikloko curriculumean xedatutako berariazko sarrera-probak egiteko aukera ematea.

2.– Ebazpen honen bidez araututako ordezko probaren ariketaren bat gainditu izanaren ziurtagiririk ez da inolaz ere emango.

Hamazortzigarrena.– Dokumentazioa.

1.– Ikaslegaiek NAN edo agiri baliokide bat eraman behar dute proba egiteko egunean, ebaluazio-batzordeak identifika ditzan, eta proba egiteko eskabidearen kopia ere eraman behar dute.

Hemeretzigarrena.– Ebaluazio-batzordea.

1.– Hezkuntzako sailburuordeak ebaluazio-epaimahaia izendatuko du: presidente bat, eta probako gai bakoitzeko irakasle bana, azken horiek batzordekide gisa.

2.– Epaimahaiak egokitzat jotzen dituen aholkularien laguntza eskatzeko aukera du.

3.– Emakumeen eta gizonen arteko oreka bermatuko da epaimahaiko kideen artean.

4.– Hona Epaimahaiaren funtzioak:

a) Proben prestaketa eta gauzatzea antolatzea. Proba horiek berdinak izango dira Euskal Autonomia Erkidego guztian.

b) Salbuespen-eskaerei buruzko erabakiak hartzea, aurkeztutako agiriak aintzat hartuta, ebazpen honen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. Halaber, aurreikusitako egoerekin bat ez datozen salbuespen-eskaerak, proben helburuarekin bat egiten duten salbuespenak izan daitezkeela iritziz

gero, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara bidaltzea, han azter ditzaten. Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak eskabide horiek ebatzi eta Epaimahaiari ebazpenen berri emango dio.

c) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak betetzea, II. eta III. eranskinetako ereduei jarriki.

d) Aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.

e) Sartzeko probak behar bezala egiten direla eta indarreko legeria betetzen dela zaintzea.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen zaio Ebazpen honetan aurreikusitakoa garatu eta aplikatzeko beharrezkoak izan daitezkeen xedapenak emateko.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduaren 2a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.

I. ERANSKINA

ERREGIMEN BEREZIKO IRAKASKUNTZETAN SARTZEKO BALDINTZA AKADEMIKOEN ORDEZKO PROBAN IZENA EMATEKO ESKABIDEA

IKASLEAREN DATUAK:

Abizenak:……
Izena:……
Jaioteguna:……NAN:……
Helbidea……
PK/Herria ……Lurraldea…….. Telefonoa ……..……
E-maila……..
Proba egiteko hizkuntza: Gaztelania ☐ Euskara ☐

☐ **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO BALDINTZA AKADEMIKOEN ORDEZKO** PROBA egiteko onartua izatea ESKATZEN DU

Hiru ezabatu

☐ Gaztelania edo Euskara ☐
☐ Frantsesa edo ingelesa ☐
☐ Matematika
☐ Gizarte-zientziak

Ikasgairen bat konbalidatzeko dokumentazioa azalduz gero, esan zein izan den:

☐ **BATXILERGOKO BALDINTZA AKADEMIKOEN ORDEZKO** PROBA egiteko onartua izatea ESKATZEN DU

Hiru ezabatu

☐ Euskara eta lit., edo gaztelania eta lit. ☐
☐ Frantsesa edo ingelesa ☐
☐ Espainiaren h.ª edo filosofiaren h.ª ☐

Ikasgairen bat konbalidatzeko dokumentazioa azalduz gero, esan zein izan den:

GERO EGIN BEHARKO DUEN IKASKETAREN BERARIAZKO PROBA

IKASKETAK	Erdi Mailako Zikloak	Goi Mailako Zikloak	Goi Mailako Arte Ikask.
Kirol-irakaskuntzak			
Arte Plastikoak			
Goi Mailako Arte-irakaskuntza			
	I.maila	III. maila	
Aldi baterako Kirol-prestakuntza			

Lutheria CPM JC ARRIAGA MKP	

……(e)n, ……(e)ko ……aren ……(e)(a)n.

Interesdunaren sinadura

II. ERANSKINA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO
GRADUATU MAILAREN ORDEZKO PROBEN EBALUAZIO-AKTA

NAN	Gizarte Zientziak	Euskara/ Gaztelania	Matematika	Ingelesa	Azken kalifikazioa

Oharrak

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Ebaluazio-batzordea

III. ERANSKINA

BATXILERGOKO GRADUATU MAILAREN ORDEZKO PROBEN EBALUAZIO-AKTA

NAN	Historia/ Filosofia	Euskara/ Gaztelania	Ingelesa/ Frantsesa	Azken kalifikazioa

Oharrak

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

Ebaluazio-batzordea

IV. ERANSKINA

..... jaunak/andreak, ... zikloetan sartzeko heldutasun-proben epaimahaiaren idazkariak (herria: ....., probintzia: .....

EGIAZTATU DU:

..... jaunak/andreak GAI kalifikazioz gainditu duela ..... irakaskuntzetako ..... mailako ikasketak egiteko bete beharreko baldintza akademikoen ordezko proba, eta kalifikazio horrek aukera hau ematen diola:

.....(e)ko berariazko sarrera-proba egitea.

.....(e)n, 20.....(e)ko .....aren .....(e)(a)n

O.E.

Epaimahaiko idazkaria
Izpta.:

V. ERANSKINA

HELBURUAK, EDUKIAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

DBH

I.– GIZARTE-ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA

HELBURUAK

1.– Gertaera sozialak eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko erlazioak bideratzen dituzten prozesuak eta mekanismoak identifikatzea.

2.– Ingurune fisikoaren ezaugarri diren oinarrizko elementuak identifikatzea, kokatzea eta analizatzea, eskala desberdinetan.

3.– Munduko eta eremu geoekonomiko handietako aniztasun geografikoaren oinarrizko ezaugarriak identifikatzea, kokatzea eta ulertzea, bai eta Euskadiko, Espainiako eta Europako ezaugarri fisikoak eta giza ezaugarriak ere.

4.– Euskadin gertatutako prozesu eta jazoera historiko garrantzitsuenak identifikatzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.

5.– Espainiaren, Europaren eta munduaren historian gertatutako prozesu eta jazoera historiko garrantzitsuenak identifikatzea, eta denboran eta espazioan kokatzea.

6.– Gaur egungo gizarteetako arazo larrienak analizatzea eta ezagutzea, eta arazo horiek izan ditzaketen sustrai historiko eta sozialak aztertzea.

7.– Honako kategoria hauek antolatzea eta erabiltzea: denbora-orientazioa (iragana, orainaldia, etorkizuna); kokapen erlatiboa denboraren barruan (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia); iraupena (gertaera faktualak, koiunturazkoak, egiturazkoak, iraupen labur, ertain edo luzeko fenomenoak); denboraren neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa). Horiek guztiek balio dute gizarteen bilakaera eta urteen joanean gerta daitekeena antolatzeko eta laburbiltzeko.

8.– Gizarte demokratikoen funtzionamendua analizatzea, eta haien oinarrian dauden balioak eta funtsezko printzipioak balioestea, bai eta herritarren eskubideak eta askatasunak ere.

9.– Europako instituzioak eta haien antolaketa politiko eta administratiboa identifikatzea eta analizatzea, mendebaldeko gizarteak Europar Batasuneko erlazio eta parte-hartzeen testuinguruan garatzen direla ulertzeko.

EDUKIAK

Geografiako edukiak.

1.– Lurra eguzki-sisteman. Lurraren mugimenduak: errotazioa eta translazioa.

2.– Lurreko inguru naturalak (tundra, sabana, basamortuak…)

3.– Eguraldiaren eta klimaren kontzeptuak. Klimaren osagaiak (tenperatura, presioa, euria…). Klimaren oinarrizko eragileak (erliebea, itsasoarekiko distantzia, altitudea, planeta-mailako korronte bero eta hotzak…). Planetako klima nagusien kokapena.

4.– Sektore ekonomikoak eta jarduera ekonomikoen sailkapena.

5.– Espainiar estatuaren antolaketa politiko eta administratiboa: udalerriak, probintziak eta autonomia-erkidegoak.

6.– Europar Batasuna: estatu kideak, zabaltze-faseak, eta eragin ekonomikoa.

7.– Biztanleria: demografiari, heriotza-tasari, jaiotza-tasari eta hazkunde demografikoari buruzko oinarrizko kontzeptuak. Iraganeko eta gaur egungo joera demografikoak. Migrazioak.

8.– Biztanleriaren banaketa eta hiri-garapena.

9.– Giza garapen desberdina. Munduko herrialdeen arteko desberdintasunak. Adierazle sozioekonomikoetan oinarritutako alderaketak: Giza garapenaren indizea. Herrialde txiroen kanpo-zorra.

10.– Ingurumen-arazoak eta natura babesteko formula juridikoak.

Historiako edukiak.

1.– Historiaurreko gizakien bizimoduak: Paleolitikoa eta Neolitikoa.

2.– Mundu klasikoa: Grezia eta Erroma. Sorlekuen kokapen geografikoa. Iberiar penintsularen erromanizazio-prozesua. Erromako eta Greziako zibilizazioen eragina Europako mendebaldeko zibilizazioan.

3.– Islamaren hedapena.

4.– Erdi Aroko gizartea. Gizartea, ekonomia eta antolaketa politikoa. Gizarte-estamentuak eta haien arteko desberdintasunak lege-arloan. Aldaketa ekonomikoak Behe Erdi Aroan. Villak, merkataritzaren berpiztea eta errege-boterea.

5.– Aro Modernoa: Amerikaren aurkikuntza eta erlijio-gerrak.

6.– Antzinako erregimena: Antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoaren definizioa eta ezaugarri orokorrak.

7.– Antzinako erregimenaren krisia eta burges-iraultzak: liberalismoa eta nazionalismoa.

8.– Espainiako independentzia-gerra.

9.– Industria-iraultza: aldaketa ekonomiko eta sozialak. Langile-mugimendua.

10.– Liberalismoaren ezarpena Espainian: foruak, konstituzioak eta gerra karlistak (1812-1902).

11.– Inperialismoa eta Lehenengo Mundu Gerra.

12.– Bi mundu-gerren arteko garaia: Errusiako iraultza, faxismoak, 1929ko krisia.

13.– Espainiako Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila.

14.– Bigarren Mundu Gerra eta blokeen politika.

15.– Frankismoa.

16.– Espainiako trantsizioa, 1978ko Konstituzioa eta Gernikako Estatutua.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Mapa tematiko, fisiko eta politiko-administratiboak ulertzea.

2.– Euskadiko, Espainiako eta Europako mapetan administrazio-unitate nagusiak identifikatzea eta kokatzea.

3.– Lurra eta eguzki-sistema deskribatzea.

4.– Euskadiko eta Espainiako paisaiak identifikatzea, alderatzea, eta espazioan kokatzea.

5.– Giza jarduerek ingurunean duten eragina identifikatzea eta azaltzea.

6.– Ekonomiaren alorreko funtsezko kontzeptuak identifikatzea eta ekonomiaren oinarrizko funtzionamendua deskribatzea.

7.– Portaera demografikoetan eragina duten faktoreak ezagutzea eta deskribatzea, oinarrizko kontzeptuak erabiltzea, munduan nagusi diren joerak bereiztea, eta Euskadiko eta Espainiako espazio geografikoan biztanleria nola banatuta dagoen jakitea.

8.– Hirien hazkundea, hiri-espazioaren bereizketa funtzionala eta hiritarrek dituzten arazoetakoren bat analizatzea.

9.– Hainbat herrialde eta lurraldetako ezaugarriak analizatzea adierazle sozioekonomikoen bidez.

10.– Historiaren garai eta aldi kronologiko nagusiak identifikatzea: Historiaurrea, Historia, Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Gaur Egungo Aroa.

11.– Iturri historiko edo geografiko batetik garrantzizko informazioa hautatzea eta ideia nagusiak ateratzea.

12.– Iraultza neolitikoak gizakien bilakaeran eragin zituen aldaketak ezagutzea eta idatziz azaltzea, eta haien garrantzia balioestea, gizarte harrapariekin alderatuta.

13.– Greziako eta Erromako zibilizazioen ezaugarri garrantzitsuenak bereiztea.

14.– Erdi Aroko Europako gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta artearen oinarrizko ezaugarriak deskribatzea.

15.– Aro Modernoaren une historiko nagusiak bereiztea: hispaniar monarkia eta inperio kolonialа.

16.– Gaur Egungo Aroko garai eta prozesu historiko garrantzitsuenak kokatzea eta bereiztea.

17.– Euskadiko eta Europako industrializazioaren eta langile-mugimenduaren funtsezko ezaugarriak identifikatzea.

18.– Europako herrialdeen politika kolonialaren arrazoiak eta ondorioak azaltzea.

19.– XX. mendean munduan eta Espainian gertatutako prozesu historiko nagusiak kokatzea eta haien ezaugarriak azaltzea.

20.– Espainiako trantsizio politikoaren eta gaur egungo gizartearen ezaugarriak azaltzea.

II.– GAZTELANIA ETA LITERATURA

HELBURUAK

Ahozko eta idatzizko komunikazioa:

1.– Diskurtsoaren formak, motak eta egitura antzematea.

2.– Igorlearen asmoak ulertzea.

3.– Hainbat genero eta erabilpen-eremutako testuen eduki globala laburbiltzea.

4.– Ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak bereiztea.

5.– Espainiako hizkuntzak ezagutzea, eta haien balio sozial eta kulturala aintzatestea.

6.– Kazetaritza-generoak bereiztea, haien egitura ezagutzea eta hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea.

Hizkuntzaren ikasketa:

1.– Perpausen eta testuen egiturak autonomiaz erabiltzea komunikazio zehatza, zuzena eta eraginkorra lortzeko; halaber, hausnarketa egitea diskurtsoa lotzen duten elementuei, juntadura- eta mendekotasun-erlazioei eta perpausaren osagaiei buruz.

2.– Lexikoa zabaltzea, eta fenomeno lexiko-semantiko nagusiak eta haien biderkatze-mekanismoak aztertzea, komunikazio-gaitasunaren garapena sustatzeko.

3.– Ortografia-arauak hobeki menderatzea, hizkuntza-gaitasuna hobetzeko baliabide gisa, helburu praktikoa aintzat hartuta.

Literatura:

1.– Testua zer literatura-generori dagokion identifikatzea.

2.– Erdi Arotik XX. mendera bitarteko garai artistikoak eta literatura-mugimenduak ezagutzea, eta haien ezaugarri, obra eta egile adierazgarrienak bereiztea.

EDUKIAK

Komunikazioa

1.– Diskurtsoaren formak:

a) Narrazioa, deskribapena eta elkarrizketa.

b) Preskripzioa.

c) Azalpena eta argudiatzea.

2.– Hedabideak:

a) Prentsa.

b) Irratia.

c) Telebista.

d) Publizitatea.

3.– Testuen interpretazioa, eta forma eta edukiei buruzko hausnarketa.

Hizkuntzaren ikasketa

1.– Hizkuntza eta haren antolaketa.

2.– Esaldia. Motak eta egitura.

3.– Perpausaren osagaiak.

4.– Perpaus bakuna.

5.– Perpaus konposatua: justaposizioa eta juntadura. Menderakuntza eta haren motak.

Hiztegia

1.– Gaztelaniazko lexikoa.

2.– Hitzak osatzeko prozedurak.

3.– Hitzen esanahia: sinonimia eta polisemia, antonimia eta homonimia.

4.– Aldaketa semantikoa.

5.– Eremu lexikoa eta eremu semantikoa.

Ortografia

1.– Azentuazio-arauak.

2.– Esaldiak mugatzeko zeinuak.

3.– Koma; puntu eta koma.

Literatura:

1.– Ezaugarri orokorrak, eta literaturaren egile eta obra adierazgarrienak: Erdi Aroko literatura, Errenazimendukoa, barrokoa, neoklasikoa, erromantikoa, errealista, modernista, 98ko belaunaldikoa eta gaur egungo literatura.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Testu mota desberdinak eta haien ezaugarriak identifikatzea, eta egoki erabiltzea.

2.– Hainbat genero eta erabilpen-eremutako testuen eduki globala laburbiltzea.

3.– Mota eta formalizazio-maila desberdinetako testuetan ageri diren funtsezko ideiak ulertzea eta eskemen bidez adieraztea.

4.– Testu-mota bakoitzari dagozkion hizkuntza-ezaugarriak zehaztea.

5.– Igorlearen asmoak igartzea.

6.– Perpaus bakun eta konposatuen funtzio sintaktikoak analizatzea.

7.– Ortografia-arauak aplikatzea.

8.– Literatura-testu bat zer generokoa den identifikatzea, haren egiturazko osagaiak antzematea, garai bakoitzari dagozkion ezaugarriak bereiztea, eta obra eta egile adierazgarrienak ezagutzea.

III.– INGELESA

HELBURUAK

1.– Testu labur, erraz eta ondo antolatuen zentzu orokorra ulertzea, informazio global eta espezifikoa ateratzea, eta puntu nagusiak eta funtsezko informazioa identifikatzea. Hizkuntza estandarrean idatzitako testuak izango dira, gai orokorrei buruzkoak, gaur egungoak edo espezialitatearekin zerikusia dutenak.

2.– Oinarrizko gramatika-egiturak erabiltzea testu xumeetan.

3.– Esaldi xume baina ondo kohesionatuen bidez gertaera bat deskribatzea: zer, noiz eta non gertatu den adieraztea.

4.– Ongi egituratutako narrazio eta azalpen labur eta xumeak egitea eguneroko gaiei buruz.

EDUKIAK

1.– Aditz-denborak / Verb Tenses

Baiezko, galderazko eta ezezko formak:

Orainaldia / Present Simple and Present Continuous

Lehenaldia / Past Simple and Past Continuous

Present Perfect. Geroaldia / going to, present continuous and will

2.– Aditz-formak

Be/have/do (present and past)

Aditz erregular eta irregularrak / regular and irregular verbs

3.– Aditz modalak

Can, could

must, mustn´t, don´t need to

I have to

Would you like..? I´d like ….

4.– Forma inpertsonalak / there and it

a) Orainaldia, lehenaldia eta geroaldia / Past, present and Future / Present Perfect

5.– Aditz laguntzaileak / Auxiliary Verbs

a) Be, have and do

6.– Galderak / Questions

7.– Izenordainak eta edutezkoak / Pronouns and Possessives

8.– Artikuluak / A, AN and THE

9.– Mugatzaileak eta izenordainak / Determiners and Pronouns

10.– Adjektiboak eta adberbioak / Adjectives and Adverbs

11.– Preposizioak / Prepositions

12.– 2. eta 3. gehigarriak / Appendix 2 and 3: irregular verbs

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Ideia adierazgarriak identifikatzen ditu eta informazio garrantzitsua ateratzen du testu labur, erraz eta ondo antolatuetatik. Hizkuntza estandarrean idatzitako testuak dira, gai orokorrei edo espezialitateari buruzkoak.

2.– Gertaera eta jardueren deskribapen laburra eta oinarrizkoa egin eta testu ulergarria osatzen du:

a) esaldien ongi lotzen ditu

b) egitura, funtzio eta lexiko egokiak erabiltzen ditu

c) oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak errespetatzen ditu

3.– Galderei erantzuten die, gramatika-egitura egokiak identifikatuz.

IV.– MATEMATIKA

HELBURUAK

1.– Zenbakiak, eragiketak eta propietateak erabiltzea eguneroko bizitzarekin zerikusia duten problemak ebazteko.

2.– Enuntziatu baten bidez azaldutako propietatea edo erlazioa hizkuntza aljebraikoaren bidez adieraztea.

3.– Eguneroko bizitzako problemak ebaztea lehenengo eta bigarren mailako ekuazioak planteatuz eta ezezagunak aurkituz.

4.– Irudi lauen perimetroak, areak eta angeluak kalkulatzea, bai eta gorputz geometrikoen bolumena ere, neurri-unitate egokiak erabiliz.

5.– Informazio estatistikoak lantzea eta ulertzea, taula eta grafiko egokiak erabiltzea, eta parametroen esanahia analizatzea.

EDUKIAK

1.– Zenbakiak

a) Zenbaki osoak: balio absolutua, eragiketak…

b) Zenbaki arrazionalak: nozio intuitiboa, zatiki baliokideak, eragiketak, ordena, dentsitatea, idazkera hamartarra, aldizkakotasuna, zenbaki dezimalak zatiki bihurtzea…

c) Unitate arrazional komunaren problema.

d) Zenbaki irrazionalak.

e) Berreketak eta erroketak.

f) Errotzaileak: kontzeptua, propietateak, eragiketak.

2.– Zenbakizko proportzionaltasuna

a) Magnitude zuzenki proportzionalak.

b) Ehuneko hainbeste, milako hainbeste, eta bateko hainbeste. Tasak.

c) Deskontu bakuna.

d) Zuzeneko hiruko erregela. Banaketa zuzenki proportzionalak.

e) Alderantzizko hiruko erregela.

f) Interes bakuna.

3.– Lehen eta bigarren mailako ekuazioak

a) Lehen mailako ekuazioak ebaztea.

b) Bigarren mailako ekuazioak ebaztea.

c) Bi ekuazio eta bi ezezagun dituzten sistema bakunak.

d) Problemak ebaztea ekuazioen edo sistemen bidez.

4.– Irudi geometriko lauak

a) Irudi poligonalen perimetroa eta area.

b) Zirkulu-formako irudien perimetroa eta area.

5.– Gorputz geometrikoak

a) Poliedroen, zilindroaren eta konoaren bolumena.

b) Esferaren bolumena eta area.

6.– Funtzio linealak

a) Funtzio baten eremua eta ibiltartea.

b) Funtzio baten hazkundea eta gutxitzea. Maximoak eta minimoak.

c) Jarraitutasuna eta etenunea.

d) Simetriak.

e) Funtzio periodikoak.

f) Funtzio linealen adierazpen analitiko eta grafikoa.

7.– Estatistika-taula eta -grafikoak

a) Datu-bilketa, populazioa eta lagina.

b) Estatistika-aldagai motak: kuantitatiboak eta kualitatiboak.

c) Estatistika-taulak.

d) Estatistiken adierazpen grafikoa.

8.– Estatistika-parametroak

a) Taulak.

b) Estatistika-grafikoak.

c) Zentralizazio-neurriak. Batez besteko aritmetikoa.

d) Moda eta mediana.

e) Sakabanatze-neurriak.

f) Kalkulagailua erabiltzea.

g) Batez besteko aritmetikoaren eta desbideratze tipikoaren baterako interpretazioa.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Berreketak eta erroketak egoki egitea.

2.– Problemak ebaztea zenbaki errealekin egindako eragiten bidez, kalkulu-modu egokia aukeratuz eta emaitzaren egokitasuna balioetsiz, testuinguruarekiko egokitasuna aintzat hartuta.

3.– Polinomioekin eta zatiki aljebraikoekin eragiketak zuzen egitea.

4.– Polinomioak faktorizatzen eta haien erroak zehazten jakitea.

5.– Edozein gradutako ekuazioak zuzen ebaztea, erro osoekin, faktorizazioaren bidez.

6.– Eguneroko bizitzako problemak ebaztea, haietan ikus daitezken erlazioen sinbolizazioaren bidez, eta, hala badagokio, ekuazioak eta ekuazio-sistemak ebatziz.

7.– Irudi lauen gainazala eta gorputz geometrikoen bolumena kalkulatzeko formulak identifikatzea eta aplikatzea.

8.– Funtzio baten grafikoan oinarrituta, haren ezaugarriak deskribatzen jakitea (eremua, ibiltartea, monotonia, ahurtasuna, maximoak eta minimoak, inflexio-puntuak, jarraitutasuna).

9.– Informazio estatistikoak aurkeztea eta interpretatzea, adierazpen grafikoen egokitasuna aintzat hartuta, eta laginaren adierazgarritasunaren balioespen kuantitatiboa egitea.

10.– Zentralizazio- eta sakabanatze-neurriak ulertzea eta aplikatzea.

V.– EUSKARA

HELBURUAK

1.– Ahozko diskurtsoak aztertu (bat-batekoak nahiz formalak).

2.– Testu literarioen nahiz beste arloetakoen ezaugarriak identifikatu, sintetizatu eta baloratu.

3.– Euskal eleberri tradizionalaren eta modernoaren ereduak aztertuz eta alderatuz, bakoitzaren elementu bereizgarriak identifikatu.

4.– Testuan esandakoa interpretatzeko gaitasuna garatzea.

5.– Irakurle kritikoa izatea, eta testuen aurrean iritzi propioarekin erantzuna emateko gaitasuna garatzea.

6.– Testuen sinesgarritasuna aztertzeko gai izatea.

EDUKIAK

1.– Argudiatze egoeraren ezaugarri bereizgarriak identifikatuz, argudiozko testu bat aztertu.

2.– Eztabaidagai batekiko nork bere ikuspuntua idatziz zein ahoz arrazoitu.

3.– Kontzesiboak, kausalak eta baldintzazkoak landu.

4.– Puntuazioa landu.

5.– Dibulgazio-artikulua sortu.

6.– Euskal eleberri tradizionalaren eta modernoaren ereduak identifikatu.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Hedabideetako edo eskola-eremuko ahozko eta ikus-entzunezko testuak (azalpenak, argudioak, elkarrizketak...) ulertzea, eta haietan aurkitu ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak nahiz tesi eta argumentuak ulertzea.

2.– Zenbait testu idatziren (azalpenezkoak, argudioak ematen dituztenak eta administraziokoak) esanahia interpretatzea, eta horien esanahi orokorra antzematea eta ondorioztatzea; halaber, ideologikoki soilak diren eta gai ezaguna duten testuen edukia eta forma balioestea ikuspegi kritikoa erabiliz.

3.– Plangintza-prozedurak erabiliz eta komunikazio-egoerara egokituz, hainbat generotako testu idatziak sortzea: arrazoiketak, azalpenak, narrazioak eta administrazio-testuak. Halaber, koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- eta aberastasun-printzipioak kontuan hartzea, eta, horrez gainera, zeregin hori betetzeko norberaren ahaleginak duen garrantzia onartzea.

4.– Hainbat generotako eta erabilera-eremutako testu idatzien eta ikus-entzunezko testuen eduki osoa irakurri eta horri buruz hausnartu ondoren, ahozko eta idatzizko laburpena egitea.

5.– Hizkuntza-elementu ugari oinarri hartuta, formulario egokia aukeratzea, erregistro formalean eta lagunarteko erregistroan argitasunez eta kortesiaz jarduteko; hau da, egoeraren eta bertan parte hartzen duen pertsonaren edo pertsonen arabera egokia dena.

VI.– FRANTSESA

HELBURUAK

1.– Testu labur, erraz eta ondo antolatuen zentzu orokorra ulertzea, informazio global eta espezifikoa ateratzea, eta puntu nagusiak eta funtsezko informazioa identifikatzea. Hizkuntza estandarrean idatzitako testuak izango dira, gai orokorrei buruzkoak, gaur egungoak edo espezialitatearekin zerikusia dutenak.

2.– Oinarrizko gramatika-egiturak erabiltzea testu xumeetan.

3.– Esaldi xume baina ondo kohesionatuen bidez gertaera bat deskribatzea: zer, noiz eta non gertatu den adieraztea.

4.– Ongi egituratutako narrazio eta azalpen labur eta xumeak egitea eguneroko gaiei buruz.

EDUKIAK

1.– Perpaus bakuna

1.1.– Perpaus motak, hura eratzen duten elementuak eta haien kokapena.

1.1.1.– Perpaus deklaratzailea:

Aditz.(+Neg.) gehi subj. (+Neg.)(+OD/OI).

1.1.2.– Galdera-perpausa:

– (Est-ce que +) perpaus deklaratzailea galdera-markekin.

2.– Perpaus konposatua

2.1.– Erlazio logikoak adierazteko.

2.1.1.– Konjuntzioa: et.

2.1.2.– Disjuntzioa: ou.

2.1.3.– Aurkakoa adierazteko: mais.

2.1.4.– Kausa adierazteko: parce que.

2.1.5.– Denbora-erlazioak: quand, pendant que.

2.2.– Erlazio logikoak adierazteko.

2.2.1.– Aurkakoa adierazteko: au contraire, par contre.

2.2.2.– Konparaziozkoa: comme, que.

3.– Izen-sintagma

3.1.– Determinatzaileak:

– Artikuluak: mugatuak eta mugagabeak (generoa eta numeroa), partitiboak.

– Erakusleak: forma bakunen generoa eta numeroa.

– Posesiboak: generoa eta numeroa.

Zenbatzaileak: numeralak, mugagabeak eta galdetzaileak.

4.– Adjektibo-sintagma

4.1.– Nukleoa: adjektiboa.

4.1.1.– Generoa: Aurkakotasunaz (erregularra/irregularra) eta aurkakotasunik gabe.

4.1.2.– Numeroa: Aurkakotasunaz (erregularra/irregularra) eta aurkakotasunik gabe.

5.– Aditz-sintagma

5.1.– Nukleoa: aditza.

5.1.1.– Motak: Erregularrak (erroan aldaketekin eta aldaketarik gabe) eta irregularrak (ohikoenak)

5.1.2.– Présent, futur et passé composé

5.1.3.– Modalitatea:

Indikatiboa.

– Premia: devoir/il faut/avoir besoin de+Inf.

– Obligazioa: devoir/il faut+Inf., agintea.

– Ahal izatea: pouvoir/savoir+Inf.

– Aukera izatea: pouvoir+Inf.,

6.– Adberbio-sintagma

– adberbioak (osaera). Kasurik ohikoenak.

6.1.1.– Motak: Kantitatea, denbora, kausa, modua, tokia.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Ideia adierazgarriak identifikatzen ditu eta informazio garrantzitsua ateratzen du testu labur, erraz eta ondo antolatuetatik. Hizkuntza estandarrean idatzitako testuak dira, gai orokorrei edo espezialitateari buruzkoak.

2.– Gertaera eta jardueren deskribapen laburra eta oinarrizkoa egin eta testu ulergarria osatzen du:

a) esaldiak ongi lotzen ditu.

b) egitura, funtzio eta lexiko egokiak erabiltzen ditu.

c) oinarrizko ortografia- eta puntuazio-arauak errespetatzen ditu.

3.– Galderei erantzuten die, gramatika-egitura egokiak identifikatuz.

VI. ERANSKINA

HELBURUAK, EDUKIAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

BATXILERGOA

I.– INGELESA

HELBURUAK

1.– Testu errazen esanahia, gaia, ideia nagusiak, xehetasun garrantzitsuak, argumentuaren haria eta ondorioak ulertzea. Testuak laburrak edo luzeagoak izan daitezke, gai orokorrei buruzkoak edota espezialitatearekin zerikusia dutenak.

2.– Hainbat hizkuntza-elementuren artean formula egokia aurkitzea, esatekoa argi eta garbi adierazteko.

3.– Genero desberdinetako testuak idaztea, gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak errespetatuz eta egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia adieraziz.

EDUKIAK

1.– Aditz-denborak / Verb Tenses. Baiezko, galderazko eta ezezko formak:

a) Orainaldia / Present Simple and Present Continuous.

b) Lehenaldia /Past Simple and Past Continuous.

c) Present Perfect. Geroaldia / going to, present continuous and will.

2.– Aditz-formak

a) Be/have/do (present and past).

b) Aditz erregular eta irregularrak / regular and irregular verbs.

3.– Aditz modalak

a) Can, could.

b) must, mustn´t, don´t need to.

c) I have to.

d) Would you like..? I´d like ….

e) I used to.

f) Forma inpertsonalak / there and it.

g) Orainaldia, lehenaldia eta geroaldia / Past, present and Future / Present Perfect.

h) Aditz laguntzaileak / Auxiliary Verbs.

i) Be, have and do.

j) Galderak / Questions.

k) Izenordainak eta edutezkoak / Pronouns and Possessives.

l) Artikuluak / A, AN and THE.

m) Mugatzaileak eta izenordainak / Determiners and Pronouns.

n) Adjektiboak eta adberbioak / Adjectives and Adverbs.

o) Hitzen ordena esaldian / Sentence word order.

p) Juntadurak eta perpaus konposatuak / Conjunctions and compound sentences.

q) Preposizioak / Prepositions.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Hainbat generotako idatzizko testuen eduki globala laburbiltzen du, idatziz, eta garrantzizko informazioa ateratzen du haietatik.

2.– Testuak irakurri ostean, iritzi arrazoituak adierazten ditu.

3.– Nolabaiteko autonomiaz idazten ditu hainbat motako testuak, egitura logiko batez, testuinguruari dagozkion gramatika-egiturak eta lexikoa erabiliz. Kohesioa eta koherentzia emateko elementuez baliatzen da, eta hizkuntza-baliabideak menderatzen ditu.

II.– FILOSOFIA.

HELBURUAK.

1.– Giza adimena ulertzea, errealitatea ezagutzeko eta aukera berriak sortzeko bidea ematen digun gaitasun gisa. Izan ere, munduaren interpretazioa egiteko, teoriak eratzeko edota giza esperientzia eraldatzeko aukera ematen digu.

2.– Zientziaren berariazko ezaugarriak eta gizakien garapenean izan duen eragina ezagutzea.

3.– Bizitzan sortzen diren egoeren aurrean balioespena egiteko eta jarrerak erabakitzeko modu desberdinak antzematea.

4.– Balioek, arauek eta erakundeek betetzen duten zeregina antzematea: kontrol-mekanismoak dira eta orientabide soziala ematen dute.

5.– Testuek adierazitako problema filosofikoak identifikatzea eta horiek ikuspegi kritikoz aztertzea eta balioestea; eta problemak beren sorrerako testuinguru historikoan, sozialean eta kulturalean kokatzea.

6.– Testu filosofikoak ulertzea eta haien barne-koherentzia aztertzea. Testuok laburtzea eta konparatzea, erabilitako termino filosofikoak ulertzeko eta iruzkin kritikoak egiteko, norberaren iruzkin-ekarpenak eginez.

7.– Filosofia-teoria eta korronteen arteko antzekotasunak eta diferentziak erkatuta, jarrera kritikoa lantzea, egungo munduko egoerak, ideiak eta pentsamoldea interpretatzeko eta balioesteko.

8.– Besteren argudioekiko, filosofia-jarrerekiko eta sinesmenekiko sentikor izatea, eta, besteren iritziekiko tolerantziazko eta errespetuzko jarrera landuz, elkarrizketa arrazionala eta ideien adierazpen askea sustatzea, gure aniztasun ideologikoa eta kulturala onartzeko.

EDUKIAK.

1. multzoa

1.– Ezagutza eratzea.

Filosofia eta zientzia, jakintza-bide gisa:

a) Zentzumenez hautemangarria den ezagutza: Zentzumenak eta sentsazioak.

b) Ezagutza arrazionala: Kontzeptuak eta ideiak.

Ezagutza zientifikoa:

a) Zientzien berezitasuna, motak eta metodoak.

b) Ezagutza zientifikoaren ezaugarriak.

Hausnarketa filosofikoa:

a) Jatorria.

b) Filosofia, egiaren eta zorionaren bilaketa gisa.

Funtsezko kontzeptuak: Ezagutza, mitoa, ideiak, teoria, esperientzia, hipotesia, legea, indukzioa, dedukzioa, metodoa, enuntziatua, kontrastazioa, egiaztatzea, teknika.

2.– Gizakien aukerak: moralaren eta etikaren esparrua.

Ekintza morala eta haren fundamentazioa.

a) Morala, ezmorala eta amorala bereiztea.

b) Erlatibismo moralaren eta balio unibertsalen auzia.

Askatasuna, autonomia gisa.

Funtsezko kontzeptuak: Ohitura, araua, balio morala, nahimena, ongia, gaizkia, erantzukizuna, askatasuna, zoriona, betebeharra, aukera, betekizuna, autonomia, izaera, kontzientzia, barnetasuna, kanpotasuna, agindua, asmoa, erlatibismoa.

2. multzoa

– Testu filosofikoak aztertzea eta iruzkintzea, eta egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzea termino eta kontzeptu filosofiko nagusiak.

– Idatziz azaltzea norberak oinarrizko galdera filosofikoekiko egindako hausnarketak, eta, pixkanaka, ikasitako autoreen pentsamoldea ikuspegi kritikoz jasotzea hausnarketa horietan.

a) Antzinako filosofia.

– Sokrates eta sofistak

– Platon eta Aristoteles.

Funtsezko kontzeptuak: Ezagupena, arrazoia, epistemologia, logosa, arjea, alezeia, fisisa, nousa, aretea, maieutika, intelektualismo morala, demiurgoa, teleologia, metafisika

b) Erdi Aroko filosofia.

– Arrazoia eta fedea. Agustin Hiponakoa.

– Filosofia eskolastikoa.

Funtsezko kontzeptuak:Arrazoia, fedea, erredentzioa, egia, zoriona, manikeismo, Jainkoa, argialdia, teologia naturala eta errebelatua, Grazia, kausa, askatasuna, esentzia, existentzia, kontingentzia.

c) Filosofia modernoa.

– Errenazimentua eta iraultza zientifikoa.

– Arrazionalismo (Descartes) eta filosofia enpirista.

– Ilustrazioaeta Kanten idealismo transzendentala.

Funtsezko kontzeptuak: Kosmologia, paradigma, idealismoa, arrazionalismoa, enpirismoa, dualismo antropologikoa, mekanizismoa, zalantza, ebidentzia, analisia, sintesia, jenio maltzurra, sustantzia, a priori, sentsibilitatea, trnazendentala, fenomenoa, kategoriak, judizioa.

d) Filosofia garaikidea:

– Filosofia marxista (Marx).

– Ilustrazioko arrazoimenaren krisia (Nietzsche).

Funtsezko kontzeptuak:Teoria, praxisa, materialismo historikoa, materialismo dialektikoa, ideologia, alienazioa, kapitalismoa, sozialismoa, ekoizpen indarrak, ekoizpen modua, ekoizpen harremanak, iraultza, nihilismoa, perspektibismoa, gaingizakia, betiereko itzulera.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Testu filosofiko baten zentzua aztertzea, haren testuinguru historiko, sozial eta kulturala aintzat hartuta, eta norberaren hitzez eta argudioz arrazoitzea testuaren zentzua.

2.– Testu baten edukiaren iruzkina egitea, beste filosofo batzuen pentsamoldearekin konparatuta, eta ideia nagusiak laburbiltzea. Horretarako, testuan erabilitako kontzeptu eta termino espezifikoak aztertzea (tesia, arrazoibidea, ondorioak) eta iruzkin kritiko pertsonala egitea.

3.– Testu filosofiko bat ikuspegi kritikoz iruzkintzea eta juzkatzea, haren ezaugarri nagusiak antzematea, eta beste autore eta filosofia-korronteekiko diferentziak identifikatzea. Halaber, testu horrek gaur egungo munduan zer-nolako eragina izan duen balioestea.

4.– Hainbat informazio-iturritara jotzea datu adierazgarriak edo gaiarekin lotura dutenak aukeratzeko, iturri hauez baliatuz: testuak, gidaliburuak, hiztegiak, Internet… Eta gaiarekin lotura duten informazio egokiak aukeratzea, zentzu kritikoz erabiltzeko.

5.– Ahozko testuak eta testu idatziak sortzea. Testu horiek argiro eta koherentziaz adierazi behar dute landutako problema filosofikoei buruz ikasleek, banaka edo taldeka, egindako ulertze- eta hausnartze-lanaren emaitza. Gainera, erabilitako arrazoibidea antzemanez eta balioetsiz egin behar dute hori guztia.

6.– Elkarrizketa ontzat ematea, arazoak konpontzeko prozedura egokiena den aldetik; besteen iritzien, jarrera filosofikoen edo sinesmenen aniztasuna errespetatzea, eta hori guztia norberaren ikuspuntuak aberasteko, argitzeko eta probatzeko modutzat hartzea.

III.– ESPAINIAREN HISTORIA

HELBURUAK

1.– Espainiaren eta Euskadiren gaur egungo historia osatzen duten prozesu azpimarragarrienak jakitea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak identifikatzea.

2.– Prozesu historikoan gertatzen diren aldaketak eta irauten duten gauzak azaltzen dituzten faktoreak ulertzea, eta gizarte-gertaerei lotutako kausalitate-aniztasunaz ohartzea.

3.– Oinarrizko kontzeptu eta termino historikoak ulertzea eta egoki erabiltzea.

4.– Ikasgaiaren edukiak egoki adieraztea eta jakinaraztea.

5.– Iturrien eginkizuna balioestea, informazio desberdinak (bai eta kontraesanean daudenak ere) eman ditzaketela ulertzea, eta lehenengo eta bigarren mailako iturri historikoen iruzkina egitea.

6.– Egungo gizartearen ezaugarrien, gatazken eta erronken jatorri historikoa ezagutzea.

EDUKIAK

Antzinako erregimenaren krisia:

1.– Independentzia-gerra eta 1812ko Konstituzioa

2.– Espainia liberalaren eraketa (1833-1874):

a) Antzinako erregimenaren eta erregimen liberalaren arteko desberdintasunak, eta haien adierazpena konstituzioan

b) Gerra karlistak eta foru-erregimenean eragindako aldaketak

c) Desamortizazioak

3.– Moderantismoaren berrezarkuntza (1875-1902):

a) Sistema politiko canovistaren ezaugarriak

b) Industrializazioa Euskadin

c) Euskal nazionalismoa

4.– Alfonso XIII.aren erregealdia (1902-1931):

a) 1917ko krisialdia eta Marokoko arazoa

b) Primo de Riveraren diktadura

5.– Bigarren Errepublika eta Gerra Zibila (1931-1939):

a) 1931ko Konstituzioa eta biurteko azañistan gauzatutako politika erreformista

b) Euskadiren autonomiarako prozesua (1931-1937)

6.– Frankoren diktadura (1939-1975):

a) Frankismoaren oinarri sozial, politiko eta ideologikoak

b) Frankismoaren faseak: ezaugarri ekonomiko eta politiko nagusiak.

7.– Trantsizioa (1975-1982):

a) Erregimen-aldaketaren urrats nagusiak eta 1978ko Konstituzioa

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Euskadiren eta Espainiaren gaur egungo historiaren prozesu azpimarragarrienak ezagutzea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko erlazioak ulertzea.

2.– Prozesu historikoan gertatzen diren aldaketak eta irauten duten gauzak azaltzen dituzten faktoreak ulertzea, eta gertaera sozialei lotutako kausalitate-aniztasunaz ohartzea.

3.– Oinarrizko kontzeptu eta termino historikoak ulertzea eta egoki erabiltzea.

4.– Ikasgaiaren edukiak egoki adieraztea eta jakinaraztea.

5.– Iturrien eginkizuna balioestea, eta lehenengo eta bigarren mailako iturri historikoen iruzkinak egitea, testuak, estatistikak, grafikoak, mapak, irudiak eta abar oinarritzat hartuta.

6.– Egungo gizartearen ezaugarrien, gatazken eta erronken jatorri historikoa ezagutzea.

IV.– EUSKARA

HELBURUAK

1.– Egoera komunikatibo desberdinetan, diskurtso koherente eta egokiak sortzea.

2.– Euskal literatura garaikidea: ezaugarriak eta idazle nagusiak ezagutzea.

3.– Euskalkiak: ezaugarri nagusiak identifikatu testu desberdinetan.

EDUKIAK

1.– Mendebaldeko euskalkia: ezaugarri nagusiak ezagutu eta testu desberdinetan identifikatu.

2.– Argudiozko testuen iruzkinak: teknika ikasi.

3.– 70eko hamarkadako literatura: idazle nagusiak ezagutu eta testuak aztertu.

4.– Literatura klasikoa: XVI. eta XVII. mendeak.

5.– Erdialdeko euskalkia: ezaugarri nagusiak ezagutu eta testu desberdinetan identifikatu.

6.– Nafarrera: ezaugarri nagusiak ezagutu eta testu desberdinetan identifikatu.

7.– Argudiozko testuen iruzkinak gauzatu.

8.– 80ko hamarkadako literatura: idazle nagusiak ezagutu eta testuak aztertu.

9.– Literatura klasikoa: XVIII. mendea.

10.– Lapurtera eta zuberera: ezaugarri nagusiak ezagutu eta testu desberdinetan identifikatu.

11.– Argudiozko testuen iruzkinak gauzatu.

12.– 90eko hamarkadako literatura: idazle nagusiak ezagutu eta testuak aztertu.

13.– Literatura klasikoa: XIX. mendea.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Ahozko eta idatzizko testuak, hedabideetakoak bereziki (iritzi-testuak, zientzia-testuak) hainbat erabilera-eremutan interpretatzea, eta gizartean betetzen duten eginkizuna eta zabaltzen dituzten balioak aintzat hartzea.

2.– Hizkuntzalaritzaz, literaturaz eta egungo egoeraz testuak idaztea (argudio-testuak, bereziki) hainbat erabilera-eremutan baliatzeko, eta aldez aurretik prestatutako eskema bati jarraituz.

3.– Hizkuntza-maila ezberdinen ezagutzak erabili eta identifikatzea, gogoeta eginez eta autonomiaz jokatuz, testuak interpretatzean eta jarduera bera arautzean.

4.– Euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzen den hizkuntza-terminologia komuna ezagutzea, eta hizkuntzari buruzko gogoeta-jardueretan zuzen erabiltzea.

5.– Gaur egungo literatura-lanen eta pasarte garrantzitsuen edukia interpretatzea, literatura moldeei, garaiei eta egileei buruz ikasitakoa erabiliz.

6.– Lan kritikoak egitea, landutako garai eta mugimenduetako testu garrantzitsuenak irakurri ondoren.

V.– GAZTELANIA ETA LITERATURA

HELBURUAK

1.– Komunikazio-egoera baten osagaiak identifikatzea.

2.– Komunikazio-asmoaz ohartzea.

3.– Hizkuntzaren funtzioak identifikatzea eta justifikatzea hainbat motako testuetan.

4.– Testuen edukia laburbiltzea eta haien gaia mugatzea.

5.– Funtsezko ideiak aipatzea, eta ideia horiek mailakatzea eskema baten bidez.

6.– Hizkuntza-maila eta -erregistro bakoitzari dagozkion ezaugarri fonetiko eta morfosintaktikoak ezagutzea.

7.– Testu-motak ezagutzea.

8.– Gaztelaniazko lexikoaren jatorria eta hitz berriak sartzeko mekanismoak ezagutzea.

9.– Gramatikaren, soziolinguistikaren eta diskurtsoaren alorreko ezaupideak eskuratzea eta erabiltzea testuak ulertzeko, analizatzeko, testu-iruzkinak egiteko, eta norberaren testuak idazteko eta zuzentzeko.

10.– Gaztelaniazko gramatikaren postulatuak eta printzipioak ezagutzea eta testuak idazteko erabiltzea. Postulatu eta printzipio horiek hizkuntzaren maila bakoitzeko (fonetiko-fonologiko, lexiko-semantiko, morfosintaktiko, testual) elementuen izaera eta haien arteko erlazioak azaltzen dituzte.

11.– Gaur egungo literaturan ageri diren literatura-mugimenduen ezaugarriak antzematea.

EDUKIAK

1.– Komunikazioa

a) Komunikazioaren kontzeptua, elementu eta kodigo semiologikoak.

b) Hizkuntzaren funtzioak.

c) Testua eta haren ezaugarriak: koherentzia eta kohesioa.

d) Hizkuntzaren aldaerak.

e) Ahozko eta idatzizko testuen funtsezko ezaugarriak.

f) Eremu sozial nagusien adierazle diren generoak identifikatzea, eta haien bereizgarritasunak analizatzea.

g) Diskurtsoaren modalitateak.

h) Masa-hedabideak.

i) Literatura, komunikazio-fenomeno gisa: Baliabideak eta generoak.

2.– Hizkuntzaren ikasketa

a) Gaztelaniazko lexikoaren oinarrizko osagaiak.

b) Zentzu-aldaketak: denotazioa, konnotazioa, aldaketa semantikoa eta aldaketa lexikologikoa.

c) Perpausaren egitura semantikoari eta sintaktikoari buruzko kontzeptuen sistematizazioa, testuinguru linguistiko eta komunikatibo desberdinetan aukera desberdinak antzematea eta erabiltzea bideratzen duena.

3.– Hitzezko hizkuntzaren egituraketa. Zeinu linguistikoa:

a) Maila fonikoa

b) Maila morfosintaktikoa

c) Maila lexiko-semantikoa

4.– Arau orokorrak eta azentu diakritikoari buruzkoak berrikustea.

5.– Testu-iruzkina

a) Laburpena. Gaia.

b) Ideiak banan-banan aipatzea.

c) Erregistro idiomatikoa. Erabilera-eremua.

d) Diskurtsoaren modalitatea.

e) Iruzkin kritikoa.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Laburpenak egitea eta hainbat motako testuetan ageri diren gaiak identifikatzea.

2.– Hainbat motako testuetako ideiak banan-banan aipatzea eta eskema baten bidez mailakatzea.

3.– Hizkuntzaren funtzioak identifikatzea eta justifikatzea hainbat motako testuetan.

4.– Gaztelaniaren modalitate eta aldaerak ezagutzea.

5.– Testu-mota identifikatzea eta justifikatzea, diskurtsoaren modalitatea eta erabilera-eremua aintzat hartuta.

6.– Erregistro idiomatikoa identifikatzea eta justifikatzea hainbat motako testuetan.

7.– Genero diskurtsibo bakoitzaren ezaugarri morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta estilistikoak antzematea eta analizatzea.

8.– Ortografia-arauak aplikatzea.

9.– Literatura-testu bat zer generotakoa den identifikatzea, eta haren egiturazko elementuak eta erabilitako baliabide linguistikoak antzematea.

VI.– FRANTSESA

HELBURUAK

1.– Testu errazen esanahia, gaia, ideia nagusiak, xehetasun garrantzitsuak, argumentuaren haria eta ondorioak ulertzea. Testuak laburrak edo luzeagoak izan daitezke, gai orokorrei buruzkoak edota espezialitatearekin zerikusia dutenak.

2.– Hainbat hizkuntza-elementuen artean formula egokia aurkitzea, esatekoa argi eta garbi adierazteko.

3.– Genero desberdinetako testuak idaztea, gramatika-, ortografia- eta tipografia-arauak errespetatuz eta egokitasun-, koherentzia-, kohesio- eta zuzentasun-maila egokia adieraziz.

EDUKIAK

1.– Perpaus bakuna

1.1.– Perpaus motak, hura eratzen duten elementuak eta haien kokapena.

1.1.1.– Perpaus deklaratzailea:

– Aditz.(+Neg.) gehi Suj.(+Neg.)(+OZ/ZO).

1.1.2.– Galdera-perpausa:

(Est-ce que +) perpaus deklaratzailea galdera-markekin.

– Galdera-elementua hasieran.

– Aditza/subjektua alderantzikatu.

2.– Perpaus konposatua

2.1.– Erlazio logikoak adierazteko.

2.1.1.– Konjuntzioa: et.

2.1.2.– Disjuntzioa: ou.

2.1.3.– Aurkakoa adierazteko: mais.

2.1.6.– Kausa adierazteko: parce que.

2.1.7.– Denbora-erlazioak: quand, pendant que.

2.2.– Erlazio logikoak adierazteko.

2.2.1.– Aurkakoa adierazteko: au contraire, par contre.

2.2.2.– Konparaziozkoa: comme, que.

2.2.3.– Baldintza: si.

2.2.4.– Ondorioa: donc.

2.2.5.– Helburua: pour.

3.– Izen-sintagma

3.1.– Determinanteak:

– Artikuluak: Mugatuak eta mugagabeak (generoa eta numeroa), partitiboak.

– Erakusleak: forma bakunen generoa eta numeroa.

– Posesiboak: generoa eta numeroa.

– Zenbatzaileak: numeralak, mugagabeak eta galdetzaileak.

4.– Adjektibo sintagma

4.1.– Nukleoa: adjektiboa.

4.1.1.– Generoa: Aurkakotasunaz (eregularra/irregularra) eta aurkakotasunik gabe.

4.1.2.– Numeroa: Aurkakotasunaz (eregularra/irregularra) eta aurkakotasunik gabe.

4.2.– Sintagmaren funtzio sintaktikoak: Atrib.

5.– Aditz-sintagma

5.1.– Nukleoa: aditza.

5.1.1.– Motak: erregularrak (erroan aldaketekin edo aldaketarik gabe) eta irregularrak (ohikoenak)

5.1.2.– Denbora:

– Orainaldia adierazteko: ind orainald., être en train de+Inf.

– Iragana adierazteko: orainald. historikoa, lehenaldi burutua. (passé composé) , venir de+Inf. (passé récent).

– Geroaldia adierazteko: Etorkizun-baliodun orainald. eta ind. geroaldia. (geroaldi bakuna), aller+Inf. (futur proche).

– Passé Composé et imparfait

5.1.4.– Modalitatea:

– Indikatiboa.

– Premia: devoir/il faut/avoir besoin de+Inf.

– Obligazioa: devoir/il faut+Inf., imperativo.

– Ahal izatea: pouvoir/savoir+Inf.

– Aukera izatea: pouvoir+Inf.,

– Debekua: ne pas pouvoir/devoir, il ne faut pas+Inf

6.– Adberbio-sintagma

6.1.– Motak: Kantitatea, denbora, modua, tokia, kausa, aurkakotasuna.

6.2.– Adberbioaren mailak honako hauekin: plus, moins, mieux.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

1.– Hainbat generotako idatzizko testuen eduki globala laburbiltzen du, idatziz, eta garrantzizko informazioa ateratzen du haietatik.

2.– Testuak irakurri ostean, iritzi arrazoituak adierazten ditu.

3.– Nolabaiteko autonomiaz idazten ditu hainbat motako testuak, egitura logiko batez, testuinguruari dagozkion gramatika-egiturak eta lexikoa erabiliz. Kohesioa eta koherentzia emateko elementuez baliatzen da, eta hizkuntza-baliabideak menderatzen ditu.